



Kaixo familia!

*Uda Aisialdia 2021*eko udaleku irekien aurrematrikulazioa egiteko epea amaitu ondoren, behin-behineko taldekatzeak egin dira. Taldekatze hauek, **13 haur + 2 begiraleko** gehienezko ratioetan eta dauden barne espazioen arabera egin dira. **Neurri hauek kontutan hartuta, egin zitzaizuen eskaintza aurrera eramatea ahalbidetuko luke.**

Aurrez jakinarazi moduan, une honetan indarrean dagoen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratuta dagoen maiatzaren 7ko 23/2021 dekretuak, aisialdiko zerbitzuetako taldekatzeak **6 haur + 1 begiraleko ratioetan** egitea arautzen du eta ezinezko egiten du *Uda Aisialdia 2021* zerbitzua martxan jartzea. Aldundiak jakinarazi duenaren arabera, **Eusko Jaurlaritzari hainbat ekarpen egin** dizkio indarrean dauden neurrien inguruan, horietako bat zehaztutako ratioen desadostasunaren ingurukoa delarik. Eusko Jaurlaritzak **ekarpen hauek kontuan hartuz gero, gure eskaintza aurrera eraman ahal izatea espero da.**

Bestalde, aipatu, egoera epidemiologiko honetan ez dela erreza izaten ari antolaketa orokorra eta taldekatzeak egitea, eta izen-emanda duzuenok **zerbitzura bertaratzearen konpromezua** hartzea eskatzen da, itxaron zerrendan geratu diren pertsonak baitaude. Gogorarazi **baja emateko aukera** egongo dela maiatzaren 12tik 18ra *Uda Aisialdia 2021 baja emateko eskaera orria* betez. Hau, [www.irura.eus](http://www.irura.eus) webgunean aurkituko duzue eta zerbitzu telematikoko bidez, (horretarako, ziurtagiri digitala behar da, hau, udaleko harreran eska dezakezue) edo kultura bulegoan entregatuz egin daiteke.

Besterik gabe, *Uda Aisialdian* elkar ikusiko dugulakoan, aldeztatik eskerririk asko eta ondo izan.

**OHARRA:** Uda aisialdiaren inguruko berriak jaso nahi badituzue Irurako Udaleko APP-a deskargatzera gonbidatzen zaituztegu.

<https://play.google.com/store/apps/details?id=acvmultimedia.irura>